

ETORKIZUNEKO MUGIKORTASU- NAREN FABRIKA

 **GO**
MOBILITY

I Basque
Sustainable Mobility
Industry Exhibition

2018ko azaroak 27 – 28
FICOBA / Irun / Gipuzkoa

 **ENERGY**
STORAGE



www.gomobility.org

GO MOBILITY MUGIKORTASUN IRAUNKOR ETA ENERGIA BILTEGIRATZEAREN INDUSTRIAREN EUROPAKO HEGOALDEKO ELKARGUNE PROFESIONALA DA.

ZERGATIK IZAN ERAKUSKETARI GO MOBILITYN?

Merkataritzako harremanak sortzeko, salmentak bizkortzeko eta bezeroak leial bihurtzeko. Go Mobility azokan bi egunez elkartuko dira erosleak, hornitzaileak, produktuak eta berrikuntzak, enpresa liderrak eta preskriptoreak, produktuak aurkeztu eta ezagutzeko eta merkataritza-akordioak lortzeko.

ETA GAINERA GO MOBILITYREN HELBURUAK HAUEK DIRELAKO



Europar mugikortasun iraunkor eta adimendunaren esparruan dauden berrikuntzen eta aurrerapenen erakustoki izatea



Mugikortasun iraunkor eta adimendunaren arloko behar eta erronken, eta produktu eta irtenbideen, trukerako jokaleku izatea



Mugikortasun iraunkor eta adimendunaren eragina eta industriarako sortzen dituen abaguneak zabaltzea



Mugikortasun iraunkorreko zerbitzu berrietan inplikaturako sektoreen arteko lotura erraztea: automobilgintza, azpiegiturak, energia, telekomunikazioak eta eraldaketa digitala



Talentu inspiratzailea eta/edo nazioartekoa erakartzea ekitaldira



Parte-hartzaileen artean negozioa sor dadila sustatzea



Eremu honetako etorkizuneko premiei erantzuna emango dieten profesional berriak prestatzeko zer erronka eta joera dauden ezagutzea



Ingurumenaren iraunkortasuna sustatzea

NOR DA ERAKUSKETARIA?

- Honako hauen enpresa fabrikatzaile, muntatzaile edo azpikontratak:
Autobusak, turismo-ibilgailuak, furgonetak, kamioiak, azken miliako garraioa
- Motozikletak, kuadrizikloak, biziletak, ibilgailu partekatua
- Mugikortasun bertikala
- Ibai garraiorako itsasontzi elektrikoak
- Bateria, motor eta beste osagaien hornitzaileak
- Karga-azpiegiturak
- Karga-azpiegiturentzako energia biltegitratzea
- Garraio-sistema adimendunez hornitzen duten enpresak
- Teknologia- eta ikerketa-zentroak
- IKTak
- Start-up enpresak
- Aholkularitza enpresak
- Klusterrak, haztegiak eta elkarteak
- Unibertsitateak eta lanbide-heziketa
- Administrazioak / Erakundeen ordezkariak
- Ingeniaritza, herri-lanak, azpiegiturak, ingeniaritza zibila
- Hiriko altzariak
- Ustiatzeko eta bidaiariei informazioa emateko laguntza-sistemak
- Finantza-erakundeak eta aseguru-erakundeak



NOR DA BISITARIA?

- Bidaiari, salgai eta hondakinen operadoreak
- Komunitate eta udalerrietako politikari eta teknikariak, hiri-garraioaren, herri-lanen, informazio-sistemen eta hiria mantentzeko lanen kudeatzaile gisa
- Industria osagarria negozio-aukera berrien bila
- Energia-hornitzaileak (elektrikoak, zerbitzuguneak)
- Azpiegitura publikoen eraikitzaileak
- Eraikuntza zibileko, arkitekturako enpresak
- Azken erabiltzailea xede duten azpiegiturak kudeatzen dituzten enpresak (merkataritza-guneak, aparkalekuetako kudeatzaileak, finen administrazioak...)
- Taxi-operatzaileak, ibilgailu partekatuko zerbitzuak, eta gertutasuneko garraio eta banaketako enpresak
- Ibilgailuen salmenta eta konponketa establezimenduak
- Ingeniaritzak eta IKTak
- Enpresa berritzaile berriak sortzeko zerbitzu erraztaileak
- Profesional berriei prestakuntza ematea xede duten unibertsitateak eta lanbide-heziketako zentroak
- Mugikortasun elektriko eta iraunkorrarekin eta biltegitratzearekin lotutako industria-ehunaren lehiakortasuna sustatzen duten klusterrak
- Inbertsioko edo arrisku-kapitaleko sareak
- Flota publiko eta pribatuen kudeatzaileak

AZOKAKO JARDUERAK

Hitzaldiak eta mahai-inguruak

Produktu eta zerbitzuak erakusteko Test espazioa

Matchmaking

Enpresetara bisita teknikoak

Go Mobility Sariak

Hosted Buyers egitaraua

BABESLEAK

GO MOBILITYK toki, nazio eta nazioarteko mailako mugikortasun iraunkorraren arloko adituz osatutako batzorde tekniko batez laguntzen da.

NON OSPATZEN DA?

FICOBA, Gipuzkoako Erakustazokan. Irunen, Euskadi-Nafarroa-Akitania euroeskualdeko bihotzean kokatua.

ZERGATIK EUSKADIN?

Mugikortasun iraunkorreko zerbitzu berrien arloan jarduketak egiten ari diren eskualdeen abangoardian dagoelako eta eskarmentu handiko industria-ehun berritzailea duelako.

Go Mobility azoka Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen eta bultzatzen du eta Eusko Jaurlaritza laguntzaile da.



PREZIOAK ETA ERAKUSKETARIEKIN HARREMANAK

Parte hartzeko tarifak web horrian ikusgai daude www.gomobility.org/eu/erakusketariak/tarifak/

Erakusketarien arduradunekin kontaktuan jartzeko:



+34 943 667 788



expo@gomobility.org



LEKUA

FICOPA, Gipuzkoako Erakustazoka
Iparralde, 43. 20302 Irun (Gipuzkoa)
www.ficoba.org / T: +34 943 66 77 88



San Sebastián 5 km
Biarritz 20 km
Bilbao 115 km



Metro Donostialdea 0 km
Renfe 1 km
TGV - SNCF 1 km



San Sebastián 20 km
Bilbao 115 km
Bordeaux 215 km

SUSTATZEN ETA BULTZATZEN DU

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ
Construyendo el futuro
de Gipuzkoa.

LAGUNTZEN DU



ANTOLATZEN DU

